

JOSEBA LEIZAOLA EUSKO LEGEBILTZARREKO LEHENDAKARI OHIA

«Madrilen benetako helburua geure autogobernua deuseztatzea da»

Kezkatuta segitu ditu azken asteotako gertaera politikoak Joseba Leizaola jeltzaleak. Batasuna legez kanpo uztea guztiz antidemokratikoa dela argi du, baina horrekin Madrilek benetan nahi duena Eusko Jaurlaritzari eskuduntzak kentzea dela iruditzen zaio.

JON URBE / ARGAZKI PRESS



ABERTZALEEN ARTEKO IKA-MIKA

BATASUNAREN ILEGALIZAZIOA

ESPAINIAKO GOBERNUA

«Argi izan behar da konfrontazioa Aznarren gobernuarekin dugula, ez geure artean»

«Jadanik ez dago demokraziarik; herriaren zati bati iritzia emateko aukera kendu diote»

«Indarkeria aitzakiatzat hartuta, Aznar abertzaletasunaren aurka gogor jokatzeko ari da»

I. Petxarroman | DONOSTIA

Prentsaren, telebistaren eta lagunekin dituen elkarrizketen bidez segitzen du Joseba Leizaola EAJko kide eta Eusko Legebiltzarreko lehendakari ohiak egungo egoera politikoa.

■ Nola ikusten duzu egungo egoera politikoa?

Indarkeria aitzakiatzat hartuta, Aznar abertzaletasunaren aurka gogor jokatzeko ari da. Kontuz ibili behar dugu orain arte lortu dugun autogobernu mailetan atzera ez egiteko eta lortu ditugun gauzak ez galtzeko.

■ Batasunaren legez kanporatzearekin euskal gatazka politikoaren konponbidea inoiz baino urrunago dagoela dirudi. Ikusten al duzu argirik tunelaren amaieran?

Oraintxe gauzak nahiko ilun daude, hori egia da. Ilun daude, eta ez bakarrik PP erabiltzen ari den estrategiatik; zoritxarrez, hemen ere Batasunak, nolabait, jokoa egiten dio. Duela hiru urte izan genituen Lizarra-Garaziko akordioak berreskuratzea litza-

teke onen-onena, abertzaleen eta abertzale ez direnen artean. Hura dena ETArekin indarkeria zela medio joan zen pikutara. Jakina, ez du esan nahi berriz ere saiatu behar ez dugunik. Hala ere, gaur egun Madrilen helburua gure autogobernua deuseztatzea da. Uste dut guk hanka sartuko bagenu laster aprobeztatuko luketela gure eskuduntzak eskuratzeko: Ertzaintza, hezkuntza... Horregatik, une honetan ezin dugu burua galdu, eta eutsi egin behar diogu lortutakoari.

■ Nahiz eta horretarako Bilboko manifestazioaren moduko irudiak errepikatu?

Bai, egia da, oso irudi gogorrak dira, baina horretara eramaten gaituzte. Eta Batasunak, gainera, nire ustez, ezer ez du egiten hori ez gertatzeko. Esaterako, Alderdien Legearen aurkako helegitea ez jartzeko Parlamentuan PSE eta PPrekin bat egitea penagarria da. Madrilen saiatzen ari dira hemengo jendea nazka dadin eta munduari adierazten hau anabasa bat dela,

mundu zibilizatutik kanpoko zerbait.

■ Horretarako ilegalizazioa?

Bai. Jakina, demokraziaren muina herriari ahotsa ematea da, bai hauteskunde bidez eta bai alderdi politikoei aukera berdina eman. Hori debekatzeko guztiz antidemokratikoa da, eta hori ere egin dute. Jadanik ez dago demokraziarik; demokrazia honi puska bat kendu diote; Euskal Herriko jende multzo batek ez du, oraingoz behintzat, bere ahotsa eta iritzia emateko aukerarik.

■ PSOE beti alderdi demokratikotzat izan duzue. Nola liteke joko antidemokratiko horretan parte hartzea?

Benetan penagarria da PSOEkin PPrekin horrela bat egitea. Egia-tan diotsut, desilusio handia eman didate. Gogoan dut transizio garaian gurekin Bilbon autodeterminazioa eskatzen ibili zirela. Baina, hein berean, ETA ere ez da ezertxo ere mugitu, bide berean dabil, eta garbi esan behar da indarkeriaren bidez ezertxo ere ez dela lortu.

■ Baina Espainiako estatuak ere indarkeria erabiltzen du Euskal Herriaren aurka.

Bai, baina guk hemen Euskal Herrian gehiengo osatzen badugu gure nortasunaren alde, behintzat ezingo dute erabili terrorismoaren aitzakia. Garbi izan behar dugu denok gu eta Aznarren gobernuaren artean izan behar duela konfrontazioak, ez geure artean.

■ Hori nola egiten da, zeren azkenean Garzonen erabakiak erabiltzen ari dira Jaurlaritza euskal herritar multzo baten aurka jartzeko.

Egia da, baina gu behartuta gaude hori betetzera. Eta betetzen ez badugu, orduan aitzakia izango lukete benetan nahi dutena egiteko, gure autogobernua ezabatzeke.

■ Baina maila gero eta gorago jar dezakete, baldintza gero eta onartezinagoak ipiniz.

Ikusiko dugu. Uste dut Ebrotik behera abertzalekeria erabiltzen ari direla, baina han ere kritikak sortzen ari dira PPren eta Aznarren politikaren aurka.

Guk, nolabait, han ere irabazi egin behar dugu.

■ Garzonen legea betetzeak ere badu kostua Jaurlaritzarentzat. 600.000 botoemaile-ren konfiantza dago jokoan.

Bai, baina Herrizaingo Saileko eskuduntzak galtzen baditugu, gero eta okerrago izango litza-teke; konfrontazio gehiago, gatazka gehiago izango genituzke.

■ Baina batek baino gehiagok pentsatuko du: 'Bai, baina ez behintzat gure artean'.

Niri ez dit poz handirik ematen elkar hiltzeak. Ahal badugu, bizirik jarraitu behar dugu. Haiek nahi dutena Jaurlaritza eta autogobernua deuseztatzea da. Argi ibili behar dugu horrekin.

■ Gero eta gehiago entzuten da EAJ bi suteran artean harapatuta dagoela. Zer egin ez erretzeko?

Babestu egin behar du lortu duguna, alde batetik eta bestetik etortzen zaizkigun erasoei kasu egin gabe. Une honetan zaila ikusten dut, baina etorkizunean, egoera baretzen bada, saiatu abertzaleen artean hitz egin, elkartu eta ados jartzen. Hori da benetan Aznarri min ematen diona. Indarkeria alde batera utzita, izan gaitezke gauza puntu nagusien inguruan hitz egiteko.

■ Benetan uste duzu Madrilek jarrera aldatuko duela indarkeria alde batera utzita?

Ez, baina ez dute izango orain duten aitzakia.

■ Zure ustez, subiranotasunerako garaia da, edo estatutua osatzekoa?

Begira, ni itsasoan asko ibiltzen naiz. Han lehen legea zeruari eta itsasoari berari begiratzea da, zer olatu dauden erreparatzeko, nora zoazen jakin arren.

■ Eta orain ekaitza dagoenez, eutsi egin behar?

Memento bakoitzean ahal duguna egin behar dugu. Norabidea ondo zehaztuta, nik ez dut eperik jartzen. Orain dela 20-25 urte ez nuen pentsatzen gaur gauden bezala egongo ginenik.

■ Eta nola gaude, hobeto edo okerrago?

Begira, nahiz eta Estatutua ez bete, egun ditugun tresnak, hezkuntza, kultura, erakunde aldetik... inoizko onenak dira; esaterako, herria euskalduntzeko.

Bihar

Ximun Haran (Enbatako sortzaileetako eta EAJren IBBko lehendakari ohiak)